



FUNTSEZKO- BALIABIDEAK

GAILURRA

Chaimae Bensliman, Maialen Uranga, Iban Tejada eta Ainhoa San Martin

Gure produktua aurrera eraman ahal izateko hainbat baliabide kontuan izan beharko ditugu. Hasteko, **baliabide fisikoak** beharko ditugu. Gure kasuan, lokal bat beharko dugu, produktua garatzeko. Bertan, material ezberdinekin egindako Nina-k sortuko ditugu eta gainera, tailer eta denda modukoa erabiliko dugu. Horretaz gain, telefonoa, ordenagailua, Nina-k egiteko makinak, etab. beharko ditugu.



Gainera, gure produktua ezagunagoa izateko webgune bat erabiliko dugu. Bertan, gure produktuaren argazkiak eta prezioak igoko ditugu eta astero eguneratuta egongo da. Hemen, **baliabide intelektualak** sartzen dira, informatikarekin ditugun trebetasunei esker gure web orria aurrera eraman dezakegulako.



Webguneaz gain, txartel batzuk egingo ditugu postontzietan banatzeko, eta horrela beste modu bat erabiliko dugu gure produktua ezagutarazteko. Eta gu arduratuko gara txartelak egiteaz eta banatzeaz.



Gaiturra

Hau dena aurrera eramateko, **finantza-baliabideak** behar dira.

Horretarako, gure aurrezkiekin hasiko gara, bakoitza 50 euro inguru gehituz. Gehiago gehitu beharko balitz, gehitu egingo litzateke, gure helburua aurrera eraman nahi baitugu.